

MENDI ETA ESKALADA KIROLN NAFAR FERAKUNDEAREN KIDEAK DIREN KLUBEI, JARDUERAK ANTOLATZEAGATIK, DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIAREN ARAUAK



DEIALDIAREN HELBURUA

Mendi eta Eskalada Kirolen Nafar Federakundearen aurrekontuen kopurua aintzat hartuz, MEKNFren kideak diren mendi klubei jarduerak, bai lehiaketak direnak baita lehiarik gabekoak ere, antolatzeagatik dirulaguntza ematea helburua da, baldin eta bere kideak federatuak badaude. MEKNFren dirulaguntzak, klubek beste alde batzuetatik lor ditzaketenekin batera, jarduerak sor dezaketen defizita arintzeko gauza izan beharko dira.

Nafarroako Komunitatea ordezkatzuz, klubaren antolatutako jarduera defizitarioek dirulaguntza eskura dezakete.

KANPOAN UZTEAK

- *Antolatzaileari sobera emango dien jarduerak.*
- *Federakundearen beraren jarduerak izategatik, jadanik dirulaguntzak jasotzen dituztenak.*
- *Nahiz eta jarduera defizitarioa izan, Federakundearen dirulaguntza dagoeneko jaso dutenak.*
- *Klubaren ekintza arruntak. Egutegiaren txango arruntak.*

NAHITAEZKO BALDINTZAK

- Dirulaguntza jasoko duen jardueraren klub antolatzaileak, FEDMEk lizentziak direla-eta eskatzen dituen baldintzak betetzea (5 federakide gutxienez).
- Jarduerak sortu dituen gastu eta diru sarrerak aurkeztea, egiaztagiriak diren dokumentuekin batera, hau da, fakturak eta beste nolabaiteko frogagiriak, jardueraren zenbateko osoa modu argi eta zehatzaz azalduz.

Aurreko baldintzak behin beteak, dirulaguntza emateko orduan hurrengo puntuak aintzak hartuko dira:

- Haurra eta gaztea mailetan (18 urte arte), mendi kirola zabaltzeko ekintzak.
- Sortu berria diren klubek eragindako jarduerak.
- Federakundeak egindako ekimenetan, klubek nola lagundu duten (lizentzien informatizazioa, Federakundearen ekintzetan federatu boluntario moduan ekarpen egitea...).
- Jardueran parte hartuko duten federatuen kopurua.

**MENDI ETA ESKALADA KIROLN NAFAR
FERAKUNDEAREN KIDEAK DIREN
KLUBEI, JARDUERAK
ANTOLATZEAGATIK, DIRULANGUNTZAK
EMATEKO DEIALDIAREN ARAUAK**



IZAPIDE

Eskaerak Mendi eta Eskalada Kirolen Nafar Federakundean (Paulino Caballero, 13 -5.) aurkeztu beharko dira azaroaren 30a baino lehen, hurrengo dokumentuekin batera:

1. Jardueraren txostena; xedea, helburuak, garapena eta Nafarroan mendian aritzea hobetzeko jardueraren eragina azalduko dituen.
2. Jardueraren Emaizten Kontua, diru sarrerak eta benetako gastuak azalduz. Egiaztatze dokumentuak (fakturak, etab.) ere aurkeztu beharko dira.
 - Dirulaguntza emateko mementuan egiten ari diren jardueren kasuetan, gastu eta diru sarreraren balantzea aurkeztu beharko da eta dagozkien fakturak.
 - Azaroaren 5ean burutu ez diren jardueren kasuan, gastu eta diru sarrerak bilduko dituen aurrekontua aurkeztu beharko da. Jarduerak behin buruturik benetako balantzea eta dagozkien fakturak aurkeztuko dira

Azaldutako epean eskatutako dokumentazioa aurkezten ez bada, eskariak ez dira onartuko.

KOBRAZKEKO EPEA

Epea behin bukatuta, Zuzendaritzako Batzordeak jarduerak aukeratuko ditu, baita dirulaguntzaren kopurua ere.

Dokumentazio osoa bada, Batzordearen erabakia hartu eta hurrengo 30 egunetan egingo da ordainketa.

Jardueraren garapena egin ez bada, egiaztatze dokumentazioa emango denetik epe berbera izango da.

*Jardueraren publizitate
Federeakundearen egungo
logotipoa izatea ezinbestekoa
da.*

AURREKONTUA

3.000€

**MENDI ETA ESKALADA KIROLN NAFAR
FERAKUNDEAREN KIDEAK DIREN
KLUBEI, JARDUERAK
ANTOLATZEAGATIK, DIRULAGUNTZAK
EMATEKO DEIALDIAREN ARAUAK**



DIRULAGUNTZAREN ERABAKIAK

Nafarroako Mendi Federakundearen Zuzendaritza Batzordeak erabakiko ditu aurkeztutako eskarerak. Honek, aurkezteko epea behin amaituta egingo duen datorren bileran, hileko lehendabiziko astelehenean ospatzen ohi duena, eskaerak ikertuko ditu.

Dialdiaren erabakiak edukiko ditu dirulaguntza eman zaien eskatzaileen zerrenda, helburua, zenbatekoa, ordaintzeko modua eta epea, eta gastuak eta diru sarreraren egiaztagiria, hala nola gainerako eskaeren ezezkoa.

DIRULAGUNTZA EMATEAREN AURKAKO ERREKLAMAZIOA

Zuzendaritza Batzordeak erabakia behin hartuta erreklamazioak aurkezteko 15 laneguneko epea irekiko da.

Eskaerak jardueraren datu edo entitatearen datuak, edo Federazioaren ustez beharrezko izan litezke dokumenturen bat izango ez balitu, eskatzaileari oharraraziko lioke 15 laneguneko epearen barne hutsak zuzentzeko edo arauzko dokumentuak aurkezteko. Halaxe eginten ez bada bere eskaerari uko egin diola ulertuko da.

Erreklamazioak behin erabakiak, dirulaguntza ordainduko da 30 eguneko epean.

DIRULAGUNTZAREN EZEZTAPENA

Gastuak frogatzearen irregulartasunak izateagatik, edo publizitatean Federakundearen logotipoa ez agertzeagatik, MEKNFk, emandako dirulaguntza indargabetu ahal izango du